

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 56. alea

DATA: 2025/12/05

GUREAN

EUSKARAREN EGUNA

Aste berezia bizi izan dugu ikastolan. Euskararen Nazioarteko Eguna astelehenean ospatzen hasi ginen. Dantzariak, buruhandiak eta Burrunba izan ziren protagonista. Asteartean Argitxorekin ibili ginen jolasean eta hainbat kahoot berezi egin ziren geletan. Frantzisko Xabierren eguna polita izan zen, benetan. 9:10ean pregoia irakurri zuten euskoliderrek eta hortik aurrera, sokatira eta txapel-jaurtiketa antolatu ziren. Arratsaldean, Eitbeko maratoirako kanta prestatu zuten DBHn eta Burrunbako finala eta txokolatada egin zuten HH eta LHn. Denok batera euskaraz bizi eta gozatu dugu. Egin euskaraz... Eguneror!



GURE INGURUAN

BIZI NATURA FAMILIAN

NOIZ: ABENDUAK 6-8
NON: DEBAGOIENA

Abenduko lehen asteburuan gure natur baliabideak ezagutzeko hainbat jarduera antolatu dira Debagoienan 8 urtetik aurrerako haurrekin egiteko.



ABENDUKO LEHEN ASTEBURUA DEBAGOIENEAN
PRIMER FIN DE SEMANA DE DICIEMBRE EN DEBAGOIENA

Abenduak 6 de diciembre	Abenduak 7 de diciembre
<ul style="list-style-type: none"> Gomiztegi: Gaztagintzaren sekretuak Arantzazun // Secretos de la quesería en Arantzazu. 10:30/Ohati Mitologia, liburuetatik basora bisita gidatua // La Mitología, de los libros al bosque visita guiada. 10:30/Ohati Txokolateixia: "Kakaoaren bidaiak", ezagutu kakaoa eta Ohatirekin harreman gozoa // "El viaje del cacao", conoce el cacao y su dulce relación con Ohati. 12:00/Ohati Arrikruz-Oñatiko kobak: Ilurpeko alborrak (gazt.) // Tesoros ocultos (cast.) [3+] 15:00/Ohati 	<ul style="list-style-type: none"> Laboratorium Museoa: Zientzia sukaldean tailerra // Taller "la ciencia en la cocina". 11:00/Bergara Txokolateixia: "Kakaoaren bidaiak", ezagutu kakaoa eta Ohatirekin harreman gozoa // "El viaje del cacao", el cacao y su relación con Ohati. 12:00/Ohati Arrikruz-Oñatiko kobak: Ilurpeko alborrak (eusk.) // Tesoros ocultos (eusk.) [3+] 15:00/Ohati Arantzazuko Parketxea: Gaueko hegazi harraparien bila // Aves rapaces nocturnas. 18:30/Ohati
<p>Abenduak 8 de diciembre</p> <ul style="list-style-type: none"> Arrikruz-Oñatiko kobak: Espeleotxiki. [6+] 10:30 Bergarako turismo bulegoa: Bergarako lorategi historikoak familiarrean ezagutu // Conoce en familia los jardines históricos de Bergara. 11:00/Bergara Txokolateixia: "Kakaoaren bidaiak", ezagutu kakaoa eta Ohatirekin harreman gozoa // "El viaje del cacao", el cacao y su relación con Ohati. 12:00/Ohati 	

Izen ematea beharrezkoa Necesaria inscripción previa
 ▶▶▶▶ infoturismo@debagoiena.eus
 943 79 64 63 www.turismodebagoiena.eus

BAZENEKITEN?



GAUR DURANGOKO AZOKA HASTEN DELA?

Durangoko Azoka euskal kulturaren topagune nagusietako bat da, urtero sortzaile, argitaletxe, musikari eta zaleak Durangon biltzen dituen. Liburu, disko eta bestelako sorkuntzak ezagutzeko aukera paregabea da, baita tailer eta emanaldi berritzaileez gozatzeko ere. Gure komunitatea animatu nahi dugu aurtengo edizioan parte hartzera: euskal kulturaren bizitasuna bertatik bertara senti eta gure sortzaileei babesa emateko aukera ederra izango da eta. Astelehenera arte, atek zabalik. Gozatu!

INFO+

